



HONDARRIBIKO UDALA

## **HONDARRIBIKO JAIETAN JARRIKO DIREN TXOZNEN ESLEIPENA ETA FUNTZIONAMENDURAKO BALDINTZAK**

### **OBJEKTUA**

Baldintza-plegu honek arautuko ditu **2010eko JAI NAGUSIETAN**, irailaren 4tik 11 bitarte, Bentako aparkalekuan, edariak eta ogitartekoak saltzeko ezarriko diren txoznen eskaera, esleipena, instalakuntza eta estantzia, ondoren zehazten diren baldintzen arabera.

### **ESKAERAK**

1.- Eskaera egin ahal izango dute nahi duten eta indarrean dagoen legediaren arabera osatuta egon eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarte eta Erakundeen erregistroan erroldatuta dauden, kultura, kirol, aisialdi edo gizarte mailako entitate edo elkarte guztiek, beti ere beraien egoitza Hondarribian izanik.

2.- Deialdi honetan ezin izango dute parte hartu:

- Alderdi politikoek, koalizioek eta sindikatuek.
- Kultura Sailaren iritziz, txoznekin lortutako dirua beraien helburua gauzatzeko erabiltzen ez duten elkarteak.

Eskaerak onartuko dira, eta ondoren zozketa bidez esleituko dira, baldintzak betetzen dituzten eta Bidasoa Eskualdean kokatuta edo ordezkaturik dauden kultura, kirol eta aisialdi elkargoak, baldin eta Hondarribian kokatutako edo ordezkaturikotako elkarteekin aurreikusitako txozna guztiak betetzen ez badira.

3.- Interesatuak Udaletxeko BAZen aurkeztuko dituzte beren eskaerak, abuztuaren 19ko 13:00ak baino lehen. Eskaera-orria sinatua egon beharko du eta bertan, eskatzailearen datu pertsonalak eta ordezkatzeko duen Elkartearenak adieraziko dira.

Esleitua izan den elkarte bakoitzak, arduradun bat izendatu beharko du, egun horietan zehar sor litezkeen arazoak udal teknikariekin koordinatu eta erabakitzeko.



## ESKAEREN ONARPENA ETA POSTUEN ESLEIPENA

4.- Eskaerak onartuak eta baztertuak bezala sailkatuko dira eta Kultura Zinegotziak sinatutako ebazpen baten bitartez onartuko dira, zozketa egin baino lehen.

Elkarte edo sail beraren izenean eskaera bat baino gehiago aurkeztuko balitz, hauetako bat bakarrik onartuko da.

5.- Gehienez 6 Txozna jartzeko baimena emango da, hauen artean 1, gizarte mailako elkarteei erreserbatuko zaiolarik.

6.- Jendearen aurrean egingo den zozketa bikoitza batean esleituko dira txoznak. Zozketa Udaleko Areto Nagusian egingo da abuztuaren 16ko 13:00ean. Lehenengo zozketan gizarte mailako elkarteak parte hartuko dute. Bigarrenengan, beste motako elkarteak eta lehenengo zozketan aukeratuak suertatu ez direnak.

Zozketan banatuko den plano batean, esleituak izan diren elkarteak, esleipenaren arabera beraien txoznaren kokapena erabakiko dute.

7.- Ezinbestekoa da elkarte guztietako ordezkariak zozketara agertzea.

8.- Esleitu zaionetakoren batek, zozketan egokitu zaion postuari uko egingo balio, Udalak postu hori bete gabetzat joko luke, eta ondorioz ordezkoei esleituko dio.

## BALDINTZA EKONOMIKOAK, TEKNIKOAK ETA BAIMENA

9.- Txoznak Benta Zaharreko aparkalekuan kokatuko dira.

10.- **SEIEHUN €ko (600 €) FIDANTZA zehazten da, beti ere diruz aurkeztuko dena**, egokitutako espazioaren erabilera eta funtzionamendu egokia, eta klausula hauen eta indarrean dauden arauen betetzea bermatzeko. Udaleko Kontuhartzailtza Sailean ezarri beharko da diru-kopuru hori, abuztuaren 27ko 13:00ak baino lehen.

Kopuru hau gainditzen duen kalteren bat egonez gero, sortzaileak ordaindu beharko du.



11.- Esleitzen zaion bakoitzak, jarduerari ekin aurretik erantzukizun zibileko poliza bat sinatuko du, gutxienez 150.000,00 €ko estaldura duena, jarduera horrek dirauen bitartean gerta litezkeen kalteei, Udalaren instalazioetan egin litezkeenei eta txozna bakoitzean saltzen den edari edo janariaren ondorioz gerta litezkeenei aurre egiteko.

12.- Esleitutako elkarteak, Kultura Sailean jaso beharko dute baimena, beti ere hurrengo lerrotan azaltzen diren agiriak aurkeztu eta gero:

- Fidantza ordaindu denaren agiria.
- Erantzukizun Zibileko aseguru ordaindu denaren agiria.

Fidantzaren zenbatekoa itzuli egingo da, baldin eta Kultura Sailak eta Udaltzaingoa aldeko txostena ematen badute.

13.- Erabat debekatuta egongo da 18 urtez beherakoei edari alkoholdunak eta tabakoa saltzea, debeku hori adierazten duen kartela bistan jarri beharko dutelarik. Kartela Prebentzio Sailak emango du.

14.- Txoznak gehienez 7x5 metrokoak izango dira. Esleituak instalapenen erabilera egokiaz eta garbiketaz arduratuko dira, zaborrak eta hondakinak poltsa itxietan aterako dituzte eta hauek, Udalak jarriko dituen edukinontzietan utzi beharko dituzte.

Kaxak, botilak eta antzeko material guztia ahal den neurrian postuaren barruan eduki beharko dituzte.

15.- Udalak jarriko du argindarra, 3500 w-ko potentzia txosna bakoitzeko, ez ordea ura eta instalazio elektrikoa. Horretarako baimena duen enpresa batek egin beharko ditu konexioak. Ikuskapena egiten den unean dagokion instalazio elektrikoaren buletina aurkeztuko da, instalatzaileak sinatua eta konpainia hornitzaileak zigilatua. Metalezko elementu guztiak lurrera konektatuko dira, eta isolamendu akats edo zeharkako kontaktuen aurkako segurtasun gailuen funtzionamendu egokia ziurtatzeko beharrezko erresistentzia izango dute elementu horiek.

16.- Sugarra edo bero-fokua duten instalazioak jartzen badira, su har dezakeen edozein elementutatik metro bete baino urrunago egongo dira, edo bestela, behar bezala babestuak



eta temperatura edo koipeek instalazio elektrikoei kalte ez egiteko moduan. Gasezko tresna guztiak homologatuak izango dira, eta beharreko aireztapena izango dute.

17.- Instalazio elektrikoan ondorioz sor daitezkeen kalteengatiko erantzukizunak ez nahasteko edo saihesteko, esleipendunak tekniko bakar bat kontratatu beharko dute txosna guztietarako. Energia ekoizteko ekipo autonomoak debekatuak daude.

18.- Ezin izango du bakoitzak bere megafonia erabili. Denentzako bat egongo da eta esleitu zaien kontura. Megafonia hori ezin izango da erabili jaietako egitarauaren barruan antolatutako ekintzen orduetan.

19.- 16 urtez beherako gazteak txozna barruan egotea edo lanean aritzea debekatuta dago.

20.- Esleitzen zaienak, behin bakarrik erabil litezkeen edalontzi biodegradagarriak eta birziklagarriak erabiliko dituzte.

Esleipendunak beteko ditu beti ere osasun-higiene arauak, eta salmentan ezarri beharreko artikuluaren edo instalazioaren gaineko araudi bereziek agintzen dituzten bestelako arau guztiak.

21.- Erabiltzaile eta okupatzaileen segurtasuna ziurtatuko dute txosnek. Halaber, 21-113B eraginkortasuneko hauts balioanitzeko bi su-itxalgailu egokituko dira txozna guztiek erabiltzeko, megafonia zentrala instalatzen den lekuan, edo Udalak eta esleipendun guztiek jakin behar duten beste leku batean. Ez egokitzeak txozna guztien erantzukizuna izango da.

22.- Postuak **irailaren 4an** zabaldu daitezke eta **irailaren 11** itxiko dira. Postua jartzeko zein kentzeko 24 orduko epea izango dute esleipendunak.



23.- Postuak ireki eta ixteko ordutegia eta megafonia erabiltzekoa honako hau izango da:

EGUNA	IREKITZEKO ORDUA	IXTEKO ORDUA	MEGAFONIA
4	19:00	5:00	4:00
5	11:00	00:00	23:00
6	11:00	7:00	6:00
7	11:00	2:00	1:00
8	11:00	6:00	5:00
9	11:00	5:00	4:00
10	11:00	6:00	5:00
11	11:00	5:00	4:00

### ZIGOR ARAUDIA

24.- Esleipendunaren arau-haustek, Udaltzaingoak egindako aktetan jasotzen direnak, oso larri, larri edo arin modura sailkatuko dira, ondorengoaren arabera:

FALTA MOTA	ARINA	LARRIA	OSO LARRIA
Hautsitako artikulua	14 eta 20		
Hautsitako artikulua		17 eta 18	13, 19 eta 21
23. artikulua haustea	20 minutu arte	30 minutu arte	40 minutu arte eta hortik gora

Falta bera errepikatzeak mailaz pasatzea suposatuko luke. Horrela bi aldiz falta arin batean erortzeak falta larri bat bezala hartua izango da. Eta bi aldiz falta larria oso larria bezala zigortua izango da.

25.- Arau-hauste hauek honako zigorra jasoko dute:

- Falta arinak 300 €ko isuna.
- Falta larriak 600 €ko isuna.
- Oso larriak diren faltak 1.200 €ko isuna jasoko dute eta fidantza ere galduko da.



Dena den, oso larriak diren faltak, hurrengo urteetan txozna jartzeko aukera bertan behera utz dezakete, Udalak horrela baderitzo.

Isunak ordaintzen ez badira, hurrengo urteetan zigortutako elkarteak ezin izango du txoznarik jarri.

Hondarribian, 2010eko abuztuaren 5ean  
**ALKATEA,**

**Izp.: Aitor Kerejeta Cid**